

STARINNOVA PROIEKTUA

- Balorezko proposamena:

Gaur egungo gizartea gero eta adinduagoa da, bizi maila eta baldintzak hobetzen dijoazten heinean, gure aiton-amonak luzaragoan bizitzea posible eginez. Hala ere, argi dago adineko pertsona guzti hauek geroz eta laguntza gehiago behar izaten dutela eguneroko jarduerak gauzatzerako garaian. Nagusienetako bat komunean eta dutxan dituzten zailtasunak dira, istripu eta arazo ugari sortuz. Hori dela eta, *multishoweren* helburua adineko edo ezgaitasun konreturen bat (ibiltzeko ego mugimendu zailtasunak) dituzten pertsonak dutxatzerako garaian laguntzea izango da, momentu hau errezteaz gain izugarri atsegin bilakatuz. Beraz, *multishowerrek* mugitzeko edo beraien kabuz dutxan sartu, garbitu, bertatik atera, lehortu... egiteko ezgaitasuna edo zailtasuna duten pertsona oro lagundu eta beraien komunean eduki ditzaketen arazoak konponduko ditugu.

Proiektua izugarri berritzailea izango da. Betiko dutxak alde batera utzi eta edonork erosi nahiko lukeen *multishowera* sortuko baitugu. Alderdi berritzaileei dagokionez, dutxa berri onek pertsona bertan exertzea besterik ez du eskatuko, gainontzeko guztia modu mekanikoan eta inongo ezfortzurik gabe jasoaz: aulkiak buelta eman, dutxa edo bainu-ontzian sartu, ura bertatik automatikoki hasi (erostean programatutako temperatura egokian), heldu edo ezgaitua xaboiu eta berriro ere urez garbitu. Azkenik, aulkiak berriro ere buelta eman eta pertsona dutxatik aterako luke, prozesu guztian zehar segurtasuna eta beraien zailtasunak lehentasun moduan hartuz. Ez hori bakarrik, benetako helburua betetzera bideratuta egongo diren berritasunez gain, pertsona alaitu eta dutxa-momentua hobetuko duten extrak ere egongo dira: toalla berotuak, musika edo irratia entzuteko altaboza... Beraz, laguntza honen beharra duten horientzat berrikizun izugarria izango da.

Eragile nagusiak guk aukeratutako enpresekin egindako hitzarmenak izango dira. Horretarako, gaur egun gure proiektua aurrera eramateko dauden enpresa modernoena izango ditugu, beraien ingurunearekiko ardura eta prezioak irizpidetzat hartuz, elkarteen segmentua ahalik eta eraginkorrena izan dadin.